


IDAZTI BARRI BI

Liburu barri bi eldu jakuz eskuetara: Jesus Legarreta'ren EUSKALDUNAK eta Beobide'tar Jose Luis'en EUSKALERRIKO IPUIÑAK.

Biak dira ikastoletara eta mailla orretan dagozan euskaldunentzat egiñak. Beobide'rena irakurgai lez artzekoa da, Legarreta'rena, barriz, ikasgai lez be egokia.

EUSKALDUNAK



Irakaskintzan eta idazletzan jo ta ke dabil aspaldion gure Jesus Legarreta, kondaira-gaietan baimendun dogun irakaslea ta ZER'en lankidea.

Liburu au giza-iztia edo antropolojia zeatu ta ikasleen maillan jarteko da, eta berak sarreran diñoan lez, «idazlan oneik sarritan euskaldun barriontzat euskera ederregian idatzita aurkitzen dira», «au dala-ta aal danik eta euskera errezenean idazten saiatu naz».

Antropoloji-lanak erriratzea da ba idazlearen elburua, eta oso ondo lortzen dau bere aldetik. Izango al ditu irakurleak ugari!

Euba'ko Pasiotarrak argitaratua da.

GAIK

Iru zati ditu liburuak: Bizitza, siniskerak eta oitura-izakerak.

Bizitza-arloan, jaiotza, ezkontza, etxea ta eriotzea aztertzen ditu, orretan doguzan oiturak agertuz.

Siniskeretan, kondaira aurrekoak, kristiñautzea, sorgiñak, Olentzero ta Donibane, zuaitzak eta egutegia aita-tzen dira.

Eta oitura-izakeretan, jan-edanak, osabideak, igarobi-deak, indianoa, lanak, etan olakoak.

Euskal antropoloji edo giza-iztiaren laburpena artu nai dauanak or dauko Azkue, Aranzadi, Barandiaran, Caro Baroja, Satrustegi ta Iztueta oiñarri lez artu dituan liburu egokia. Sakonago jo nai dauanak, gero izango dau erea.

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

Ona emen irakurteko gozo ta euskera errezezko liburu polit bat.

EUSKERAZALEAK taldearen arduraz irarkolaratua, eta Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz argitaratua.

Ez da liburu aundia: 110 orrialde guztiz. Baiña argi irarria eta atsegiñez irakurtekoa.

120 ipuin inguru dira eta azalean eta barruan irudi egokiz apainduta datoz. Nicolas dogu margolaria.

Idazleak berak diñosku ipuiñak nortzukandik artuak diran: Azkue, Barandiaran, Estomba..., Iturri garbiak eta onak benetan.

Lenengo atala ei da liburu au eta bigarrena be ateetan ei dago, erea danean argitara urteteko.

Liburu eder onetan aurkibidearen bearkizuna agiri dala uste dot.

Zorionak Beobide'tar Jose Luis'eri ta bere lankideai.

OLAZAR'tar Martin'ek

